

# Tasa igoera lotsagarrien aurkako

## SINADURA BILKETA

Zabortegia ixten denerako zarama biltzeagatik kobratzen den tasari ezarri zaion %86ko igoera, eta udal igerilekuetara sartzeko kobratu nahi duten euro bateko tasa berria bertan behera gera daitezten, **7.142 pertsonen sinadurak** aurkeztu egin dira jadanik udal erregistroan.

Datorren urteari begira udal batzarrak %4ko igoera onartu du tasa gehienetarako, baina **herritarren eskaerari ez diote oraindik jaramonik egin**. Herri erantzunari esker oraindik kobratzen ez ari diren arren, zaramaren %86ko igoera eta igerilekuetako euroa ez dituzte ezeztatu.

Udal igerilekuei dagokienez, Fadurako txikia itxita daukate egun gehienetan eta litekeena da tasa berria 2006ko urtarriletik kobratzen hasi nahi izatea. Kobraketa egiteko, **makinetan 71.500 €-ko gastua egin dute**. Pasabide hezeetan kokatuta dauden eta argiindarra darabilten makina hauetan, igeri egin aurretik eta ondoren ere nork bere txartela esku bustiekin sartu beharko du.

Alperrikako gastua eta kobraketa gehiegikeriarekin batera, **argiindarra eta hezetasuna elkartuz igerilekuetako erabiltzaileak arriskuan** jarriko dituzte.

Honengatik guztiagatik sinadurak biltzen jarraitzeaz gain, Fadura eta Gobelako igerilekuetako erabiltzaileoi, gune hezeetan kokatuta dauden **makinak ez erabiltzeko** eta **tasa berria ez ordaintzeko** deia egiten dizuegu.

Udal tasen gehiegizko igoeren aurkako getxoztarrok hiri hondakinetarako irtenbide garbia nahi dugu eta zerbitzu publikoen izaera soziala indartzeko, herritar guztiontzat eskuragarriak diren prezioak. **Parte hartu eta sina ezazu!**

**Udal tasen gehiegizko igoeren aurkako getxoztarrok**

*Getxotarras contra las subidas abusivas en las tasas municipales*